

Ezkonekon baliabide hauek ditugu gure negozioa funtziona dezan.

Baliabide fisikoak: Ordenagailua, telefonoa, furgoneta elektrikoa, inprimagailua, lokala eta argazki kamera.

Ordenagailuak eta mugikorrak behar ditugu gure bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure web orrialdeak eta ezkontzak planifikatzeko. Gure asmoa bezeroen etxeetara joatea da gauzak hobeto planifikatzeko, horretarako, gure kotxe pertsonala erabiliko dugu, eta zorionez, elektrikoa da. Beste kotxe bat ere behar dugu gure bikotea era ekologikoan ezkontzara ailega dezaten, beraz, elektrikoa izan behar da ere, horrela ahalik eta gutxien kutsatuko dugu. Beste alde batetik lokal bat beharko dugu materiala gordetzeko, adibidez, aulkiak, apaingarriak, mahaiak... Argazki kamera ere behar dugu ezkontzan zehar egingo diren argazkiak egiteko. Ateratako argazki guztiak ordenagailura pasatuko ditugu eta ondoren bezeroei bidaliko dizkiegu.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Txofer bat behar dugu bikotea ezkontza izango den lekura eramán ahal izateko, guk egoten garelako ekitaldia egiten den lekuan dena prestatuta dagoela ziurtatzen. Antolatzen ditugun kurtsoetaz guk arduratzen gara, prest gaudelako guk ekologiarri buruz dakigun guztia beste batzuei erakusteko. Gure web orrialdea eta sare sozialak ere gure kargu daude, gure enpresa hoberen esagutzen dutenak garelako eta hari buruz hitz egiten badakigulako. Azkenik, gure arduradun batek, gida ekologikoen eta gonbidapenen diseinuetaz arduratzen da.

Finantza-baliabideak: prestamo bat eskatu beharko dugu ez dugulako beharrezko dirua hainbat gauza ordaintzeko. Gure intentsioa prestamoa ahalik eta azkarren bankuari itzultzea da, baina, hala ere, gure enpresarekiko konfiantza dugu eta pentsatzen dugu gure proiektua ondo aterako dela eta denbora motzean bankuari diru guztia bueltatu ahalko diogula.